



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

# Arrasateko San Juan Taldea berrurbanizatzeko parte hartze prozesua

LEHEN BILERA ERRONDA: BILERAREN AKTA (ALFONTSO X PLAZA)

**2023ko martxoak 13**




# Aurkibidea

|  |    |
|--|----|
| <b>Aurkibidea</b> .....  | 2  |
| <b>1. Parte hartze prozesuaren ezaugarriak</b> .....   | 3  |
| <b>2. Saioaren ezaugarriak</b> .....   | 4  |
| <b>3. Saioaren garapena</b> .....  | 5  |
| 3.1. Lanketa taldeetan: zein proposamenekin egiten duzu bat? Zer da gehien gustatzen zaizuna? Zer hobetuko zenuke? Zer aldatu? ..... | 6  |
| 3.2. Elkar jartzea.....  | 10 |

# 1. Parte hartze prozesuaren ezaugarriak

San Juan taldeko auzoaren saneamendua konpontzeko lanak egin behar dira. Arrasateko udalak aukera baliatu nahi du auzoaren berrurbanizazioa egiteko. Horretarako, parte hartze prozesu bat abiatu du eta auzotar guztiak deitu ditu bertan parte hartzera.

Horrela irudikatu da parte hartze prozesua:



Lehenik eta behin, martxoaren 2an bilera informatiboa egin zen, auzotar guztiei zuzendua, prozesuaren nondik norako nagusiak, helburuak eta baldintzak azaltzeko.


Martxoaren 13, 14 eta 16an lehen bilera erronda izango da. Gaurkoa izan da bilera erronda honen lehen bilera. Bertan, auzotarren ikuspuntuak jasotzea da helburua. Elkarrizketa antolatzeko, 3 bilera deitu dira, plaza bakoitzeko bat, azterketa, elkarrizketak eta analisia antolatzeko.

Bai martxoaren 2ko bileran eta baita gaurkoan ere zenbait bizilagunek desadostasuna adierazi dute analisia plazatan banatzeari, baina azaldu da hori abiapuntua baino ez dela, ondoren udalak proposamen guztien lanketa egingo duelako eta bizilagun guztiak deituta, martxoaren 29an beste bilera bat egingo da bigarren lanketa bat egiteko. Bertan xehetasunetan eta zalantzetan jarriko da fokua. Horiek kontuan hartuta, berriz ere lanketa egingo da, beti ere kontuan hartuz udalaren helburua dela proiektua esleitzeko pleguak egitea, ez proiektu zehatza bera. Proposamen hau apirilean egingo den azken saioan berretsiko da. Saio horretara ere bizilagun guztiak izango dira deituta.

Eskaera izan da ez lotzea deialdiak plaza jakinetara, eta onartu egin da. Bizilagun bakoitza etorri dadila hobekien datorkion datara.

Bizilagunek egin duten beste eskaera bat izan da Bixente Ferrer eta Zaldibar kaleak lanketan sartzea eta horrela sartu dira.

Tamaina honetako proiektuak luzeak izan ohi dira. Hori dela eta, hauek dira, ondo bidean, aurreikusten diren denbora epeak:



2023an partaidetza prozesua egingo da. Kontuan hartuta maiatzean udal hauteskundeak egongo direla, aurretik amaitu beharko da. 2024 urtea izango litzateke proiektua lizitatzeko eta behin betiko diseinua egiteko garaia eta lanak 2025 urtean hasiko lirateke.

Hauteskundeen gaiak ere hainbat zalantza ekarri ditu. Izan ere, galdetu da ea zer pasako den prozesu honen emaitzekin gobernu aldaketarik ematen bada. Erantzun da ez dagoela ezer ziurtatzeko modurik eta ziurgabetasun horren jakitun egin beharko dugula aurrera parte hartze prozesu honetan.

## 2. Saioaren ezaugarriak

Hauek dira saioaren datuak:

Eguna: 2023ko martxoaren 13an, Arrasateko Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan.  
Orduetgia: 18:00-20:00  
Asistentzia: 51 lagun

**San Juan Taldeko** 51 bizilagun  
**Arrasateko udaletik:** Zinegotziak (Anuska Ezkurra Zubizarreta eta Ander Garai Zabaleta) eta udal arkitektoak (Aitor Jauregi Larrañaga eta Amaia Iriondo Alberdi)  
**Saioa bideratzen:** Emun (Naia Rodriguez Casado eta Mikeldi Zeberio Loinaz)

### 3. Saioaren garapena

Lehenik eta behin auzoari buruzko informazioa eman da, martxoaren 2ko bileran egindako eskaera bati erantzunez:

| San Juan Taldeari buruzko datuak |     |
|----------------------------------|-----|
| Etxebizitzak                     | 199 |
| Lokalak                          | 18  |
| Aparkalekuak                     | 164 |
| Ibilgailuak (turismoak)          | 167 |

Berrurbanizazioa gaur egungo mugikortasun arauen arabera egin behar da. Horrek, halabeharrez, ekarriko du aparkaleku kopurua murriztea. Dena den, murrizketa hori hainbat modutara egin daiteke, eta irizpide ezberdinak kontuan hartuz. Hori dela eta, 3 kasu edo eredu ezberdin aurkeztu dira, beti ere elkarrizketarako abiapuntu gisa, eta ez eredu bat edo bestearen artean aukeratzeko helburuarekin.

Hiru eredu hauek horrela aurkeztu dira, modu orokorrean:

| PLAZA                                  | HELBURU OROKORRAK |           |           |
|--|-------------------|-----------|-----------|
|  | 1. AUKERA         | 2. AUKERA | 3. AUKERA |
| IPARRAGIRRE<br>ALFONTSO X<br>JM EGUREN |                   |           |           |
| BIXENTE FERRER<br>KALEA                |                   |           |           |
| ZALDIBAR KALEKO<br>ITZULBIRA           |                   |           |           |
| APARKALEKU<br>KOPURUA, guztira         | 99                | 129       | 77        |

### Argibideak:

Aukera guztietan dago autoen eta pertsonen arteko elkarbitza. Ikonokoarekin irudikatu nahi izan dena da zein gailenduko den besteren aldean.

Aukera bakoitzean aparkalekuentzat adierazten diren kopuruak orientagarriak dira.

**1. aukera:** hiru plazetan oinezkoak gailenduko dira autoen aurretik, baina Bixente Ferrer kalea eta Zaldibar kaleko itzulbiretan autoek izango dute lehentasuna. Kasu honetan, autoentzat 99 plaza inguru erreserbatzen dira.

**2. aukera:** autoek lehentasuna izango dute eremu guztietan. Aukera honetan aparkalekuak maximizatzea lehenesten da. Aparkaleku gehien izango duen aukera litzateke, 129 ingururekin.

**3. aukera:** pertsonak lehentasuna izango dute eremu guztietan. Aukera honetan autoei San Juan Taldera sartzeko eragozpena jartzen zaie hiru plazak lotzen dituen zirkuitu baten bidez. 77 izango lirateke aparkalekuak eredu honetan.

## 3.1. LANKETA TALDEETAN

Proposamenen araberako 3 mahai antolatu dira taldekako azterketa egiteko, mahai bakoitzean proposamen bat landu da. Zenbait auzotarrek aipatu dute ez zutela aurkeztutako proposamenekin bat egiten eta laugarren mahai bat sortu da proposamen berri bat lantzeko. Mahai bakoitzean auzoaren plano bat jarri da eta taula bat ekarpenak jasotzeko. Jarraian jaso dira mahai bakoitzean bildutakoak:

### 1. MAHAIA: 1 aukera


| <b>1. PROPOSAMENA</b>     | ZER DA GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUENA?  | ZER ALDATUKO ZENUKETE?   | KONTUAK HARTZEKOAK  |
|---------------------------|--|--|---|
| ALFONTSO X PLAZA          | <i>Itxura bertan utzi.<br/>Zuhaitzak bertan utzi.<br/>Dagoenetan utzi.</i> | <i>Barne plazako irisgarritasuna bermatu.<br/>Kota 0<br/>Arkupetako argiteria txukundu</i> | <i>Saneamendua egiterakoan telefono linea "neutroak" jarri.<br/>Auzoarentzat orokorra</i>           |
| BIXENTE FERRER KALEA      |  |  |   |
| ZALDIBAR KALEKO ITZULBIRA |  |  |   |
| JM EGUREN PLAZA           | <i>Espaloi handiak eta kota 0</i>  |  | <i>Portaletatik irteterakoan pertsonentzat lekua izatea.<br/>Zona peatonalak berdeguneak izatea</i> |
| IPARRAGIRRE PLAZA         |  |  | <i>Zona peatonalak berdeguneak izatea</i>   |

|                    |   |
|--------------------|---|
| <b>BESTELAKOAK</b> | <b>Biteriko aparkalekua gauen bizilagunentzat doan izatea</b> |
|--------------------|---|

2. MAHAIA: 2 aukera

| <b>2. PROPOSAMENA</b>     | ZER DA GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUENA?  | ZER ALDATUKO ZENUKETE?  | KONTUAK HARTZEKOAK   |
|---------------------------|--|---|--|
| ALFONTSO X PLAZA          | <i>Mantener los jardines y levantar a cota 0<br/>Dejar el resto tal cual</i> | <i>Iluminación, en general<br/>Recuperar acceso a la parte del río (eliminar esos aparcamientos)<br/>Estatua de Biteri a Biteri</i> | <i>Acceso difícil a la parte de atrás<br/>Alternativas a falta de aparcamiento: Biteri a precio de OTA</i> |
| BIXENTE FERRER KALEA      |  |   |  |
| ZALDIBAR KALEKO ITZULBIRA |  |   |  |
| JM EGUREN PLAZA           |  |   |  |
| IPARRAGIRRE PLAZA         |  |   |  |


3. MAHAIA: 3 aukera



| <b>3. PROPOSAMENA</b>              | ZER DA GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUENA?                    | ZER ALDATUKO ZENUKETE?   | KONTUAK HARTZEKOAK   |
|------------------------------------|--|--------------------------|--|
| ALFONTSO X PLAZA                   |  | <i>Argiteria gehiago</i> | <i>Zuhaitzak orain dauden moduan mantendu<br/>Kota 0</i>     |
| BIXENTE FERRER KALEA               |  | <i>Argiteria gehiago</i> |  |
| ZALDIBAR KALEKO ITZULBIRA          |  | <i>Argiteria gehiago</i> |  |
| JM EGUREN PLAZA                    |  |                          |  |
| IPARRAGIRRE PLAZA                  | <i>Iparragirre plazaren sarrera peatonala izatea</i> |                          |  |
| <b>GRUPO SAN JUAN ATZEKO ALDEA</b> |  |                          | <i>Belardia ipintzea, kotxeak etxetik gertu ez pasatzeko</i> |



4. MAHAIA: 4 aukera



| 4. PROPOSAMENA            | ZER DA GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUENA?                             | ZER ALDATUKO ZENUKETE?   | KONTUAK HARTZEKOAK  |
|---------------------------|---|--|---|
| ALFONTSO X PLAZA          | <i>Zuhaitzak gaur dauden moduan.<br/>Aparkamenduak berdin</i> | <i>Saneamendua<br/>Zaindu auzoa.<br/>Konpondu:<br/>Espaloiak, jardina,<br/>argiteria</i> | <i>Kota 0 edo "plataforma<br/>única"<br/>Kanalizazioa<br/>telekomunikazioarena.</i>   |
| BIXENTE FERRER KALEA      | <b>OTA</b>  | <i>Irisgarritasuna</i>   | <i>Zehaztu norabideak<br/>Zebra pasabideak<br/>Kota zero<br/>Pibotea kotxeak<br/>murrizteko</i>   |
| ZALDIBAR KALEKO ITZULBIRA | <i>Erreka</i>   | <i>Pasilloa jarri</i>  | <i>Kota zero</i>  |
| JM EGUREN PLAZA           | <i>Lasaia dela kotxe gutxi pasatzen delako</i>                | <i>Arbolak eta berdegunea<br/>Bankuak<br/>Aparkamendu gutxiago</i>                       | <i>Bizikletak gordetzeko<br/>Kota zero<br/>Etxeek dauzkate 3 eskailera portalean:<br/>aztertu zelan gutxitu daitekeen altuera hori espaloia altuago jarrita</i> |

|                   |                        |  |   |
|-------------------|------------------------|--|---|
| IPARRAGIRRE PLAZA | <b>Akzesibilitatea</b> | <b>Igogailuak Garibai kalean</b><br><b>Ezebez</b><br><b>Berdeguneak</b><br><b>Aparkamendu gutxiago</b> | <b>Kota zero</b><br><b>Parkinak Biterin,</b><br><b>prezioak egokituta</b> |
|-------------------|------------------------|--|---|

### 3.2. ELKAR JARTZEA

Saioa amaitzeko, talde bakoitzean landutakoa azaldu dute parte hartzaileek bozeramaileen bidez. 4 taldetan garatu da elkarrizketa eta bukaeran inpresio orokorrak denon artean partekatu ditugu. Hauek dira elkarrizketa horretatik atera diren ideia nagusiak:

#### Lehenengo taldea:

- Alfontso X plaza dagoenetan utzi
- Barneko plaza irisgarriagoa egin
- Arkupeetako argiak ondo jarri
- Eguren: kota zero
- Orokorrean: saneamendua egitean telefono linea neutroak jartzeko aukera.
- Zona peatonalak berdeguneak izatea
- Biteriko aparkalekua auzokideei baldintza berezietan.

#### Bigarren taldea:

- Alfontso X jardinekin eta zero kotara altxa
- Gainerakoa dagoenetan utzi, soilik arautegira egokitu
- Argitzapena: orokorrean hobetu
- Ibairako sarrera errekuperatu. Aparkaleku horiek kendu
- Irismen zaila atzeko aldera
- Aparkaleku galerarako alternatibak: parkinga TAOren prezioan
- Biteriko estatua Biterira



### Hirugarren taldea:

- Kota zero auzo osoan
- Atzeko partean: bermatu etxe alboetan espaloia edo berdegunea
- Alfonso X berdin mantendu, baina 0 kotarekin.
- Berdeguneak erabiliko dira? Planoan agertzen direnekin zalantzak. Egiten badira erabilgarriak izatea.

### Laugarren taldea:

- Kota 0
- Zuntza sartzeko, sare "neutroa"
- Parkinga Biterin, baldintza berezietan
- Alfontso X: gaur egun dagoena mantendu, dauden zuhaitzak
- Iparragirrerekin ez da adostasunik lortu
- Argiteria hobetu
- Estatuarekin zer egin eztabaida egon eta ez da zehaztu
- Bizikletentzako lekuak plaza guztietan
- Aparkaleku gutxiago
- Atzeko partearekin zalantzak: atzeko dena peatonalizatu? Zati bat?
- Norabideak ondo zehaztu auzo osoan (kotxeena)
- Kotxeentzat pibotea jarri egoiliarrentzat